# Gnaturaldia

GIPUZKOAKO NATUR JARDUNALDIAK-JORNADAS DE NATURALEZA DE GIPUZKOA

"Naturaren Dibulgazioa" Topaketako
**Konklusioen Aurrerapena**

**Avance de las conclusiones**
del encuentro: La divulgación
de la naturaleza

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Medio Ambiente
y Obras Hidráulicas

ORAIN
GIPUZKOA

## Topaketako konklusioen aurrerapena / Avance de las conclusiones del encuentro



**José Ignacio Asensio Bazterra**

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Foru Diputatua
Diputado Foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

**Gipuzkoa Naturaldia urteroko dibulgazio topaketa da, Gipuzkoako naturari eskainia.** Tolosa Naturaldiaren oinordekoa izaki, ekitaldi egitarau honek konplizitateak eta aliantzak sustatu eta sintonizatu nahi ditu Natura maite dutenen artean, guk harekin atzera bat egin eta defenda eta babes dezagun. Giza jarduerak eragin erabakigarria du -zuzenean edo zeharka- ingurumenean eta planeta gurekin partekatzen duten beste bizidun guztien gainean. Gure ekintzek joan-etorriko bidea egiten dute, kasu guztietan, eta bide horrek eragina du jada gugan, eta horrela segituko du, gainera, etorkizunean ere gure ondotik etorriko diren bizidun belaunaldien gainean eragiten. **Gipuzkoa Naturaldiak Naturarekiko begirunera eta Naturaganako estimura, batez ere hurbilen daukagunarenganakora, daramaten bide posible guztiak esploratzea jaso nahi du, praktika gisa.** Izan ere, Naturan garenaren gaineko kontzientzia kolektibo horrek bakarrik motibatu ahal izango gaitu gure espezie gisako garapena eta honek lagatzen duen aztarna ekologikoa kontrolatzen ikasteko eta birbideratzeko.

**Gipuzkoa Naturaldia es un encuentro divulgativo anual dedicado a la naturaleza de Gipuzkoa.** Heredero de Tolosa Naturaldia, este programa de eventos aspira a promover y sintonizar complicidades y alianzas entre amantes de la Naturaleza, en favor de nuestro reencuentro con ella y de su defensa y preservación. La actividad humana tiene una influencia decisiva –directa o indirectamente- sobre el medio ambiente y sobre los demás seres vivos con los que compartimos el planeta. Nuestros actos tienen, en todos los casos, una trayectoria de ida y vuelta que está repercutiendo ya sobre nosotros y que lo seguirá haciendo en el futuro sobre las generaciones de seres vivos que nos sucedan. **Gipuzkoa Naturaldia quiere incorporar como práctica la exploración de todos los caminos posibles que conducen al respeto y aprecio por la Naturaleza, especialmente por la que tenemos más cerca.** Solo esa consciencia colectiva sobre lo que somos en ella, puede motivarnos para aprender a controlar y reconducir nuestro desarrollo como especie y la huella ecológica que este va dejando.

**Topaketako konklusioen aurrerapena / Avance de las conclusiones del encuentro**

# TOPAKETA: NATURAREN DIBULGAZIOA

**2016.05.19**
TABAKALERA, PRISMA, DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

**Lehen edizio honetan, Gipuzkoa Naturaldiak gogoeta partekaturako geldialdi bat egin du**, edozein mugimenduren aurretik, eta ongi elikatzearren etorkizuneko bere estrategiak diseinatzera begira. **Gogoeta lan hori egun batean bildu da, joan den maiatzaren 19an zehazki eta Tabakalerako Prisma aretoan**; egun horretan, **goizean, eztabaida lantegi bat egin zen naturaren gaiko 57 adituren artean** (naturalistak, anbientalistak, ikerlariak eta abar izan ziren tartean), **dibulgazio atalaz osatuta** (komunikatzaileak, sortzaileak ...); eta **iluntze partean jendeari zabaldutako ekitaldi bat** izan zen, aditu horietako asko bertan zirela, eta inguratu zen jendeak haiekin hitz egin ahal izan zuen.

Parte hartu duten **adituak** fundazio eta elkarte zientifikoetatik eta ingurumenarekin lotuetatik **iritsi dira**, ingurumen ekipamenduetatik, hedabideetatik eta artearen eta ikus-entzunezko sorkuntzaren mundutik (eskultura, pintura, literatura, arte eszenikoak, soinua...), eta baita kultur zentro, unibertsitate, marketin eta komunikazio enpresa eta administrazio publikotik ere. Aditu horiek **6 lan-mahaitan** banatu ziren; horietan ahalik eta osaketarik heterogeneoena bilatu zen, lortu nahi zena baitzen **topaketa eta ideia nahasketa eragitea esparru profesional oso desberdinetatik zetozen eskema eta kode mentalen artean**.

Eta esan dezakegu jardunaldi horren **emaitza arrakastazkoek** zerikusia dutela bai sortu zen **laneko giro bikainarekin** bai egin ziren **ekarpenen aberastasunarekin**; baina baita **funtsezko kontu batzuen inguruan sortu zen kontsentsu espontaneo eta ia-ia magikoarekin** ere. Eta hori guztia **6 akta, 150 konklusio orokor, eta 86 iradokizun osagarri jasotzen dituzten 2 eranskinetan** jasota geratu da (eskerrik asko Atauniker eta Jaizkibel Amaharri elkarteei, gogotik lan egin dutelako).

# ENCUENTRO: LA DIVULGACIÓN DE LA NATURALEZA

**En esta primera edición Gipuzkoa Naturaldia ha realizado una parada para la reflexión compartida,** previa a cualquier movimiento y con el fin de nutrirse bien de cara al diseño de sus estrategias futuras. **Esta reflexión se ha concentrado en un día, el pasado 19 de mayo en la sala Prisma de Tabakalera,** con la celebración de un **taller matutino de debate entre 57 expertos de la naturaleza** (naturalistas, ambientalistas, investigadores...) **y de la divulgación (comunicadores, creativos,...)** y con un **acto abierto al público al final de la tarde,** que contó con la presencia de muchos de esos expertos y en el que los asistentes pudieron departir con ellos.

**Los expertos** que han intervenido **proceden de** fundaciones y asociaciones científicas y medioambientales, de equipamientos ambientales, de los medios de comunicación, del mundo del arte y creación audiovisual (escultura, pintura, literatura, artes escénicas, sonido…), de centros culturales, de la universidad, de empresas de marketing y comunicación, y de la administración pública. Dichos expertos se distribuyeron en **6 mesas de trabajo,** compuestas todas por una mezcla de componentes lo más heterogénea posible, dado que lo que se buscaba era provocar el **encuentro y mezcla de ideas entre esquemas y códigos mentales procedentes de ámbitos profesionales bien diferentes.**

Podemos decir que los **rendimientos exitosos** de esa jornada tienen tanto que ver con el **inmejorable clima de trabajo** que se creó, como con la **riqueza de aportaciones** que se hicieron; pero también con el **espontáneo –casi mágico- consenso que surgió acerca de una serie de cuestiones de fondo.** Todo ello ha quedado plasmado en **6 actas, 150 conclusiones globales y 2 anexos con 86 sugerencias complementarias** (nuestro agradecimiento a las asociaciones Atauniker y Jaizkibel Amaharri, que

## Topaketako konklusioen aurrerapena / Avance de las conclusiones del encuentro

Orokorrean motibazio handikoa izan den giro horri buruz azpimarratu behar ditugu, halaber, **konklusio tematikoetatik aparte hunkitu gaituzten zenbait kontu:**

1. Den-denek topaketa horretarako hitzordua ia-ia gonbidapena egin zitzaien unean bertan onartu izana; are bertan egon ahal izateko zenbait eragozpen zuela zenbaitek. Hau da, Naturari buruz hitz egin ahal izatea LEHENTASUNEZKO INTERESA sortzen duen kontu bat da.

2. Topaketaren aurretiko eskerronezko adierazpenak, aurretiazko ideia eta ekarpenez osatuak. Hau da: proiektua osatzen duten osagarrien multzoak zerbait transmititzea lortu du eta horrek AURRETIAZKO SINESGARRITASUNA EKARRI DIGU. Arrazoia dena dela (nork deitu duen + zer esan den + nola transmititu den) ikusi dute zerbait egin nahi dela, ekitaldiak arreta eskaintzea merezi duela.

3. Ekitaldian ZEHAR IZANDAKO JARRERA. Harrera, ekarpenak egiteko eta laguntzeko gogoa, gauzak konpondu nahia, sentsibilitatearen aldetiko exijentziak, erregu gisakoak, eta “mundua konpondu” daitekeelako ustea -are tolesgabe eta neurrigabea-, Aldundiarekin harremanetan jar daitekeelakoa kezkak, eskaerak, bihotz barneko sentimenduak helarazteko... Emozioa nagusi izan zen hasieratik beretik. EKITALDI ZINTZOA ZELA SINETSI ZUEN OROK. Nahiz estilo mediatikoa -erakargarria- eman zitzaion. Egiazko ekitaldia izan zelako. Ez muntaketa bat.

4. Eta hainbat gauza antzeman ahal izan ziren: **( 1 )** Elkarte naturalisten eta ingurumenekoen aldetik: dena egun batean konpontzeko asmoa, eskatzeko, adierazteko asmoa; baina ezer adierazteko lekurik inoiz izan ez balute bezala; halako larritasun gogortua eta ustekabe eskerronezkoa, maila berean nolabait, pilatzen diren eta pisatzen duten gauzak azaleratu ahal izateagatik. Baina ez zen protesta hutsa egiteagatiko errebindikazio eta protesta izan, baizik eta kezka modulatu, serio eta lasai baten transmisioa. Agertu ziren baita ez-ulertze batzuk ere forma konbentzional eta

han trabajado con especial intensidad). Al respecto de ese ambiente de gran motivación general, no podemos menos que resaltar **cuestiones que, al margen de las conclusiones temáticas, nos han conmovido.**

1. La aceptación, casi inmediata, de la cita para dicho encuentro, por parte de todos; incluso, con acrobáticos cambios de agenda para poder asistir. Es decir: poder hablar de Naturaleza se trata de una cuestión que INTERESA DE FORMA PRIORITARIA.

2. Los agradecimientos previos al encuentro, con ideas y aportaciones previas. Es decir: el conjunto de ingredientes que componen el proyecto ha logrado transmitir “algo” que hace que SE DEPOSITE EN NOSOTROS UNA CREDIBILIDAD PREVIA. Por lo que sea (quién ha llamado + qué se ha dicho + cómo se ha transmitido) han visto que se quiere hacer algo, que el evento merece atención.

3. La ACTITUD DURANTE el evento. La acogida, las ganas de aportar y contribuir, el ansia por arreglar, las exigencias en clave sensible, implorante y la creencia –incluso ingenua y desproporcionada- de poder “arreglar el mundo”, de contactar con la Diputación para transmitir ansiedades, demandas, sentires del corazón… Hubo mucha emoción desde el principio. HUBO CREDIBILIDAD EN LA HONESTIDAD DEL ACTO. A pesar del estilo mediático –atractivo- que se le imprimió. Porque fue un acto cierto. No un montaje.

4. Se pudo percibir: **( 1 )** Por parte de las asociaciones naturalistas y medioambientales: pretensiones de arreglar todo en un día, de pedir, de expresar; pero como si nunca hubiera habido un lugar en el que ser escuchado; cierta ansiedad endurecida y sorpresa agradecida, a partes iguales, por poder dejar aflorar cosas que se acumulan y pesan. Pero no fue reivindicación y protesta, sino una transmisión de preocupación modulada, seria, tranquila, como si no hubiera nadie más con quién hablar. También se mostraron algunas

ebanjelizatzailezko naturalisten munduari eman nahi zaion berrituaren inguruan; **( 2 )** Komunikatzaile eta sortzaileen aldetik: naturarekin eta ingurumenarekin atzera konpontzeko, atzera adiskidetzeko, eta horien alde zerbait egiteko gogo itzela. Beren seme-alaben heziketari buruz, haien etorkizunari buruz, hitz egiten dutenean agertzen den kezka eta kultura ekologista. Are *mea culpa* bat ere, jendaurrean adierazia; eta **( 3 )**, Denon aldetik: ekarpenak egiteko gogoa, ekimen honen gaineko sinesmen sendoa, giza emozioa, are ofentsaren nolabaiteko zentzu bat ere diskurtsoa eta eztabaida osatzeko aukeratutako hitzen urritasuna dela eta (ez dezagun dibulgaziora jo, natura izan gaitezen). Eta kulturaren errebindikazioa gauza transbertsal eta izateari dagokiona den heinean, ez tresnatzat hartuta.

5. Azken batean: Gipuzkoa Naturaldia, hasieratik beretik -hori propio bilatu gabe eta planteatzeko unean izan diren askatasun eta hunkiberatasunagatik agian- NATURAREN PARTE SENTITZEKO GUNEA izan da, hari buruz hitz egiteko lekua, harekin adiskidetzeari buruz hitz egitekoa, gure pentsamenduak hari eskaintzekoa, gure seme-alabei (hots, gauzarik sakratuenari, intimoenari) buruz hitz egitekoa. Bertaratu guztiek, jatorri orotako adituak izan baitira eta diskurtso burutsuak emango zituztela espero bazitekeen ere horiengandik, BEREN BIHOTZ BARNETIK EGIN DITUZTE EKARPENAK, inongo doakotasunik gabe. Emozioak azaleratu ziren. “Larru” eguna izan zela esan daiteke.

6. Ekitaldiaren ondotik elkarrizketa asko sortu zen partaideen artean, eta horietan programak, ekitaldiak... proiektatu ziren. NATURAK INTERESA PIZTEN DU, HORIXE DA GAIA. EZ DUGU ASKO BEHAR PROIEKTUAK PARTEKATZEN HASTEKO.

7. Ekitaldiaren ondotik eskerron eta aparteko ideien ekarpen ugari jaso dira. Baita disponibilitate mezuak ere, proiektuaren nondik norakoen berri jakiten jarraitzeko desiren manifestuak. Denei esan diegu konklusioen berri emango diegula, egiteko prestatzen den guztiaren berri. Ekitaldian egin zitzaien argazkiren bat edo beste ere bidali

incomprensiones acerca de la innovación que se quiere imprimir al mundo naturalista de formas convencionales y verdades evangelizadoras; **( 2 )** Por parte de los comunicadores y creativos: unas ganas inmensas de congraciarse, de reconciliarse y hacer algo por la naturaleza y el medio ambiente. Una preocupación y cultura ecologistas que manifestó con fuerza cuando hablaban de la educación de sus hijos, de su futuro. Incluso un *mea culpa* entonado en público; y **( 3 )** Por parte de todos: ganas de aportar, creencia vehemente en esta iniciativa, emoción humana, incluso cierto sentido de la indignación ante la “parquedad” de las palabras escogidas para componer el discurso y el debate (no divulguemos, seamos naturaleza). Y una reivindicación de la cultura como algo transversal y perteneciente al ser, y no como algo instrumental.

5. En definitiva: Gipuzkoa Naturaldia ha supuesto desde el inicio – sin pretenderlo, y quizá por esa libertad y emotividad con que se ha planteado- un ESPACIO EN EL QUE SENTIRNOS PARTE DE LA NATURALEZA, en el que hablar de ella, hablar de nuestra reconciliación con ella, dedicarle nuestros pensamientos, hablar de nuestros hijos (lo más sagrado, lo más intimo). Todos los asistentes, expertos de toda procedencia, gente de la que cabía esperar discursos sesudos HAN APORTADO DESDE EL INTERIOR DE SUS CORAZONES, sin un ápice de gratuidad en ello. Afloraron emociones. Fue un día de “piel”.

6. Posteriormente al evento se sucedieron muchas conversaciones proyectando programas, eventos… entre los participantes. LA NATURALEZA INTERESA, ES TEMA. NO HACE FALTA MUCHO PARA QUE NOS ANIMEMOS A COMPARTIR PROYECTOS.

7. Posteriormente al evento se han recibido muchos agradecimientos y aportaciones de ideas extra. Así como numerosas manifestaciones de disponibilidad, de deseos de seguir sabiendo del devenir del proyecto. A todos les hemos dicho que les mantendremos al tanto de las conclusiones, de lo que se vaya a hacer. Les

diegu, eta eskerrak eman dizkigute horregatik. Hau da, dagoeneko KOLABORATZAILE POTENTZIALEN TALDEA daukagu. Haiek zaintzen ari gara jada.

Eta BIRIBILKA saioari buruz, publikoarekin egindako topaketari buruz, esan behar dugu harritu gintuela ekitaldiak izan zuen harrerak eta etorritako jendetzak. Baita publikoa ikusgarri egon zela ere, zalantzarik gabe eztabaidari dagokion mailan. Bertan egon ziren aditu guztiak goizeko ondorioak gertutasun bereziarekin eta modu egokian aletzeko eta komunikatzeko gai izan ziren modu berean, publikoak argi utzi zuen bazekiela zertaz ari ginen hitz egiten. KOLABORATZAILE ETA LAGUNTZAILEEN TALDEA HANDITU EGIN ZEN. EMOZIOTIK NATURAZ HITZ EGITEAK BEREHALAKO KONEXIOA SORTZEN DU.

hemos enviado alguna fotografía de su persona en el evento, que nos han agradecido. Es decir, tenemos ya UN EQUIPO DE COLABORADORES POTENCIAL. Estamos cuidando de ellos ya.

Y respecto de la sesión BIRIBILKA, de encuentro con el público, hay que decir que sorprendió la acogida del evento y la afluencia. También, que el público estuvo espectacular, rotundamente a la altura del debate. Que lo mismo que todos los expertos que nos acompañaron fueron capaces de desgranar y comunicar con especial cercanía y acierto las conclusiones de la mañana, el público mostró saber perfectamente de qué estábamos hablando. EL EQUIPO DE COLABORADORES Y AMIGOS SE AMPLIÓ. HABLAR DE LA NATURALEZA DESDE LA EMOCIÓN GENERA UNA CONEXIÓN INMEDIATA.

**Topaketako konklusioen aurrerapena / Avance de las conclusiones del encuentro**

## KONKLUSIO TEMATIKOAK

Hiru galdera nagusi izan ziren goizeko baterako gogoetaren muin: ( 1 ) Zein da egungo egoera, abiapuntukoa, naturaren gaineko dibulgazioari dagokionez?, ( 2 ) Zer da, gure ustez, naturaren gaineko dibulgazio sortzaile eta kalitatezkoa? eta ( 3 ) Zein izan daitezke Gipuzkoa Naturalditik egiteko lehen pauso onak?

Arreta handiz prozesatu behar den informazio baliotsu asko bildu da. Dena den, titular batzuk aurrera ditzakegu:

### ( 1 )

**ZEIN DA EGUNGO EGOERA, ABIAPUNTUKOA, NATURAREN GAINEKO DIBULGAZIOARI DAGOKIONEZ?**

**1.-** Duela hamarkada batzuetako egoerarekin alderatuta (Félix Rodriguez de la Fuente, Cousteau eta BBCren dokumental handiak, aldizkari eta irrati programa espezializatuak, etab.) ikusten da ezen, **oro har, naturaren gaineko dibulgazio lanak edo biztanleriak horrekiko duen interesak behera egin duela**. Interesgarria litzateke horren zergatia aztertzea: ez du interesik sortzen ez delako dibulgazio lanik egiten, edo ez da dibulgazio lanik egiten ez duelako interesik sortzen?

**2.-** Jaitsiera horren arrazoia izan daiteke **orain herritarrek informazio asko eta askotarikoa jaso dezaketela, bitarteko asko eta askotarikoen bidez** (gehiegizko informazioa eta saturazioa), eta horrek ahuldu egiten du gai hauen gaineko interes zehatzak indar hartzeko aukera, arreta berezi eta espezifikorik eragiten ez bada behintzat.

**3.-** Ingurumenarekin lotutako albisteak, normalean, tremendismoaren bidetik ageri dira hedabideetan (klima aldaketak eragindako hondamendiak, “gizateria arriskuan” eta antzekoak). **Ikuspegi**

## CONCLUSIONES TEMÁTICAS

Tres fueron las preguntas principales en las que se centró la reflexión conjunta de la mañana: ( 1 ) ¿Cuál es la situación actual, de partida, en divulgación de la naturaleza?, ( 2 ) ¿Qué entendemos por una divulgación de la naturaleza creativa y de calidad? y, ( 3 ) ¿Cuáles pueden ser unos buenos primeros pasos desde Gipuzkoa Naturaldia?

Se ha recogido mucha información valiosa que se ha de procesar con detenimiento. No obstante, se avanzan algunos titulares:

### ( 1 )

**¿CUÁL ES LA SITUACIÓN ACTUAL, DE PARTIDA, EN DIVULGACIÓN DE LA NATURALEZA?**

**1.-** En relación con hace unas décadas (grandes documentales de Félix Rodriguez de la Fuente, Cousteau, de la BBC, revistas y programas de radio especializados, etc.) se observa que, **de forma general, la divulgación de la naturaleza o el interés de la población por ella ha descendido.** Sería interesante analizar por qué: ¿no interesa porque no se divulga, o no se divulga porque no interesa?

**2.-** El descenso anterior puede estar provocado porque **la ciudadanía tiene ahora acceso, a través de muchos y diversos medios, a mucha y muy variada información** (sobreinformación y saturación), lo que diluye el impacto o la posibilidad de que prenda el interés concreto por estos temas si no se provoca una atención especial y específica al respecto.

**3.-** Las noticias ambientales aparecen habitualmente en los medios de comunicación de masas a través del código del tremendismo (catástrofes provocadas por el cambio climático, “la humanidad en peligro”, etc.). **Esta visión catastrofista ha provocado cierto cansancio en la**

**katastrofista horrek halako neke bat eragin du gizartean, dauzkagun arazo ekologikoei dagokienez: "ekonekea"**. Horregatik klima aldaketa, esate baterako, ez da jendearen kezka nagusien artean dagoen kontu bat. Ez, behintzat, kontzienteen artean. Ideia fatalista, porrot ideia ("honek ez du konponbiderik") sustraitzen ari da, eta hortik begiak ixtera eta hedonismora eta errealitatetik ihes egiteko obsesiora ("gu geurera, bizitza laburra da eta") pauso txikia dago. Tremendismo horrek albisteak saltzea besterik ez du bilatzen, edo masak alienatzea eta kontsumismoa elikatzea propio bilatzen duen estrategia bat da? **Beharrezko irizten zaio mezu konstruktibo eta gainditzailera itzultzeari, hutsalkerian erotzeke ordea, gauden lekuaren gaineko kontzientziatik abiatuta**. Gaitasuna eta animoa berreskuratu edota sustatu behar ditugu, titularrak interpretatzeko, irizpideak maneiatzeko eta espiritu kritikoa behar bezala erabiltzeko, hedabideen bitartez iristen zaigunarekiko sinesmen zein mesfidantza itsuan ez erortzeko.

**4.-** Teorikoki halako sentsibilizazio bat baden arren naturarekiko eta dituen arazoekiko (ekologiarekiko kezka, talde protekzionistak, etab.), **arrakala handia dago naturaren eta dituen balio eta bitartekoen gaineko ezagutza errealean**, gazteen artean bereziki (belaunaldi jauzia), batez ere horietako gehienek ia-ia "bizitza" osoa hiri ingurunean ematen dutelako, landa/natura ingurunetik zeharo bereizitako modu batean alegia. **Naturako balio eta bitartekoekiko lotura** -identitatezko, bizipenezko eta existentzial- **falta nabaria dago**. Denboraren, begiestearen, gure geure pentsamenduak lantzeko eta gure geure izatearekin benetan konektatzeko denboraren balio galerak gero eta gehiago urruntzen gaitu parte garen natura horretatik. Naturarekin bat egin behar dugu atzera.

**5.-** Ildo horretatik, **ezagutza eta estimu maila orokorrean baxuaren barnean, ikusten da maila hori are apalagoa dela tokiko eta hurbilagoko naturaren kasuan**. Zerbait badakigu Serengetiko lehoiei eta sabanei buruz, arrastorik

**sociedad respecto de los problemas ecológicos que acarreamos: la "ecofatiga".** Por eso, el cambio climático, por ejemplo, no es un tema que esté entre las principales preocupaciones de la gente. O no, al menos, entre las conscientes. La idea fatalista y de derrota ("esto no tiene remedio") va calando, y de ahí a cerrar los ojos y al hedonismo y a la obsesión por evadirse de la realidad ("a vivir, que son dos días") hay un paso. ¿Este tremendismo busca únicamente vender noticias o es una estrategia que persigue deliberadamente alienar masas y alimentar el consumismo? **Se considera que es necesario volver al mensaje constructivo y superador, pero sin banalizar, desde la consciencia de dónde estamos.** Es necesario recuperar y/o fomentar la capacidad y el ánimo de interpretar los titulares, de manejar criterios y utilizar adecuadamente el espíritu crítico, para no caer ni en la creencia ni en la desconfianza ciegas respecto de lo que nos llega a través de los medios.

**4.-** Aunque, teóricamente, existe cierta sensibilización por la naturaleza y sus problemas (preocupación por la ecología, grupos proteccionistas, etc.) **se da**, sobre todo en los jóvenes (salto generacional), **una importante brecha en el conocimiento real de la naturaleza** y sus valores y recursos, debido fundamentalmente a que la mayoría desarrolla prácticamente toda su "existencia" en el medio urbano, de forma muy desligada del medio rural/natural. **Existe una notable falta de conexión** -identitaria, vivencial y existencial- **con los valores y recursos de la naturaleza.** La pérdida del valor del tiempo, de la contemplación, de la parada para elaborar nuestros pensamientos y para conectar verdaderamente con nosotros mismos y con los seres que nos rodean nos aleja, cada vez más, de la naturaleza a la que pertenecemos. Es necesario reencontrarnos con la naturaleza.

**5.-** En este sentido, **dentro del bajo nivel de conocimiento y aprecio general, se observa que este es aún menor en relación con la naturaleza local y más cercana.** Se conoce algo de los leones y las sabanas del Serengeti,

ez ordea muturluzeari eta artadi kantauriarrari buruz, hementxe, gure ondoan baditugu ere betiko ez galtzeko ahaleginetan. Lur basati eta urrunekoetako natura handiaren idealizazioa gertatzen da, animalia handiz betearen eta dokumental ederretakoaren idealizazioa, ezagutza eta estimu falta, berriz, naturako balio propioekiko.

## ( 2 )

## ZER DA, GURE USTEZ, NATURAREN GAINEKO DIBULGAZIO SORTZAILE ETA KALITATEZKOA?

**6.-** Lehen-lehenik, **koherentzia gehiago behar da esaten denaren eta egiten denaren artean. Azken batean, dibulgazioak ez du bakarrik ideia eta mezuetan oinarritu behar, ekintza erakusgarriz osatutako mami koherente eta jarraitua ere eraman behar baitu berekin**. Gizarteak oso sentsibilizazio defizit handia ikusten du agintarien artean, zeren eta naturaren edo ingurumenaren kontserbazioaren aldeko diskurtsoa kontraesanean baitago haiek aplikatzen dituzten politiketako askorekin. Erakunde publikoen kasuan lehen pertsonako eredugarritasun hori ezinbestekoa da, edozein mezuk sinesgarritasuna lortuko badu, baina ez da kontu samurra, zeren eta gobernatzaileek -azken batean- herritarren interesak ordezkatzen eta defendatzen baitituzte, paralelismo ageriko batez jardunez betiere politika bakoitzaren inguruan dagoen gizarte-kohesio mailarekiko; agintariak, normalean, herritargoa osatzen duten interes eta iritzi taldeen -zilegi dira guztiak- isla dira. **Gipuzkoa Naturaldiak agian eginkizunen bat izan lezake, eragileen arteko TOPAGUNE gisa, babestu nahi ditugun naturako eta ingurumeneko balioei zein horiek guztiak ez galtzeko ekiteko prest gauden ekintzei buruzko gizarte elkarrizketa eta kontsentsua sustatzeko**. Pribatuaren munduari dagokionez, ohiko samarrak dira enpresa handi eta erakunde ezagun batzuek erabiltzen dituzten komunikazio praktika batzuk, **“greenwashing”** edo “garbitu berde” deitua kasu; horien bidez askorik ez da

pero no se tiene ni idea sobre el desmán y el encinar cantábrico, que tratan de no extinguirse aquí, a nuestro lado. Existe una idealización de la gran naturaleza de tierras salvajes y lejanas, de grandes animales, de gran documental, y una falta de reconocimiento y aprecio por los valores naturales propios.

## ( 2 )

## ¿QUÉ ENTENDEMOS POR UNA DIVULGACIÓN DE LA NATURALEZA CREATIVA Y DE CALIDAD?

**6.-** En primer lugar, **es necesaria la mayor coherencia posible entre lo que se dice y lo que se hace. En definitiva, que la divulgación no ha de apoyarse tan solo en ideas y mensajes, sino que debe de llevar asociado un fondo y una acción demostrativa, coherente y continua.** La sociedad percibe un gran déficit de sensibilización entre los gobernantes, ya que el discurso de conservación de la naturaleza o el medio ambiente es contradictorio con muchas de las políticas que se aplican. En el caso de las instituciones públicas es imprescindible esta ejemplaridad en primera persona para lograr credibilidad ante cualquier mensaje, aunque esto no es cuestión fácil, dado que los gobernantes representan y defienden –en definitiva- los propios intereses ciudadanos existentes y con notable paralelismo respecto del grado de cohesión social que exista con relación a cada una de las políticas; los gobernantes son, por lo general, un reflejo de los grupos de interés y opinión –legítimos todos- que componen la propia ciudadanía. **Quizá Gipuzkoa Naturaldia podría tener algún papel en servir de PUNTO DE ENCUENTRO entre agentes para la promoción del diálogo y consenso social acerca de los valores naturales y del medio ambiente que deseamos preservar y acerca de las acciones que estamos dispuestos a emprender para no perderlos.** En cuanto al mundo de lo privado, son relativamente habituales algunas prácticas de comunicación utilizadas

egiten natura eta ingurumenarekiko errespetuarekin lotutako gaietan, baina behin eta berriro iragartzen da norabide horretan asko egiten ari delako ideia, eta titularrak errepikapenaren indarrez lortzen du bere helburua. **Gauza bat esan eta beste bat egitera jotzen duen gizartean, ideiak saltzen dituen gizartean, kalitatearen dibulgazioak -Gipuzkoa Naturaldia- balio beharko luke pertsonei tresnak eskaintzeko, horien bidez begiratu ahal izatearren naturarekiko errespetuaren axaleko ideia horren atzean zer dagoen**; izan ere horrela egiaztatu ahal izango litzateke naturarekiko errespeturako mezu horrek, egiaz, naturaren alde egiten duten jardueren babesa duen.

**7.-** Natura ez dago herritarrek (landatarrek zein hiritarrek), are hura "ezagutzeko" ere, naturaz beraz egiten duten erabilera instrumentaletik bereizita. **Ustezko "balioesteak", horren atzetik natur ingurunera iristeko aukerak erraztea eta aktiboki sustatzea dator, herritarren "ingurumen hezkuntza" jarririk helburu** (eta zenbaitetan osagarri dituela "aisialdi eta turismo berde" kontraesanezkoa) **inpaktu garrantzitsuak dakartza berekin gehiegizko maiztasun, bilketa eta predazio masiboengatik**. Badirudi gizakiak ez duela ulertzen natura ez dela bizi berak natura hori bizi duen neurrian, hots, begiratzen, ukitzen, bistan edukitzearren flasko batean sartzen, makilatxo batez zirikatzen, jaten, erabiltzen duen neurrian, eta ez du ulertzen sarritan naturgune bati eta bertan bizi direnei egin diezaiekeen mesederik handiena dela gizakiaren presentzia ezarri hori saihestea, errespetu gabea edo masifikatua denean behintzat. Adibide garbia dugu Ordesakoa: parkerako sarrera atzerago uztea nahikoa izan da bisitari kopurua murrizteko eta, horrenbestez, inpaktu positibo bat eragiteko. Naturaren dibulgazio kalitatezko batek aztertu eta kontuan hartu beharko luke alderdi horien guztien arteko erlazioa.

**8.-** Naturaren dibulgazio lanari exijitzeko gutxieneko batzuk badirela ulertzen da: **dibulgatzen den horrek oinarri zientifikoa eduki behar du, zehaztasun maila batekin eta euskarri**

por algunas grandes empresas y organizaciones conocidas como **"greenwashing"** o "lavado verde", de manera que se hace más bien poco en temas relacionados con el respeto por la naturaleza y el medio ambiente, pero se anuncia repetitivamente la idea de que se está haciendo mucho en esta dirección, calando así el titular por mera recitación. **En una sociedad en la que se tiende a decir una cosa y a hacer otra, a vender ideas, la divulgación de calidad –Gipuzkoa Naturaldia- debería servir para ofrecer a las personas herramientas que permitan asomarse a ver qué hay detrás de esa idea superficial de respeto por la naturaleza** para, así, comprobar si ese mensaje de respeto por la naturaleza está respaldado en la realidad por actuaciones que, efectivamente, la defienden.

